

## **AURKIBIDEA**

1. AURREKARIAK
2. XEDEA
3. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA
4. ESKAINITAKO LURZORUEN EZAUGARRIAK ETA GEHIENEO PREZIOA
5. KONTRATATZEKO GAITASUNA
6. PROPOSAMENAK AURKEZTEA
7. ESKAINTZA INTERESGARRIAK HAUTATZEKO PROZEDURA
8. KONTRATAZIO-ORGANOA
9. SALEROSKETA-KONTRATUA FORMALIZATZEA
10. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
11. EZ-BETETZEAK
12. KONFIDENTZIALITASUNA
13. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA
14. JURISDIKZIO ESKUDUNA

----- 0 -----

## 1.- AURREKARIAK

2018ko apirilaren 10ean, Gobernu Kontseiluak 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana (ekainaren 18ko Etxebizitzaren 3/2015 Legearen esparruan egindako lehenengo gida-plana) Eusko Legebiltzarrari jakinarazi eta igortzeko erabakia hartu zuen.

Etxebizitza Plan horren 1. ardatzak, zeinak alokairuko etxebizitzaren parkea bultzatzea baitu helburu, alokairu-araubideko etxebizitza berrien promozioa bultzatu beharra xedatzen du, eta honako promozio-helburu hauek ezartzen dizkio VISESAri:

	2018	2019	2020	2018-2020
<b>Promozio berriko etxebizitzak (etxebizitza-kopurua)</b>	2.000	2.100	2.250	6.350
VISESAren gizarte-babeseko etxebizitzak	275	350	475	1.100
VISESAk eskuratutako lurzoruak	150	200	200	550

Aurreikuspenen arabera legealdi honetan eskuratu behar den lurzoru-kopuruari dagokionez ezarritako helburua ezin da bete beste administrazio publiko batzuekin (batik bat, udalekin) lankidetzan aritzean dautzan mekanismo tradizionalak erabilia soilik. Aitzitik, eskura dauden lurzoru babestuen eskaintza handitzeko aukera ematen duten beste eragile pribatu batzuen parte-hartzea behar da.

Hori dela eta, deialdi publiko honen helburua da 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planean adierazitako helburuak eta egitekoak betetzeko beharrezkoak diren lurzoruak eskuratzea.

2019ko martxoan, deialdi bat argitaratu zen, 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planean adierazitako helburuak eta egitekoak betetzeko beharrezkoak ziren lurzoru-eskaintzak jasotze aldera. Helburua hori izanik, interesa zuten pertsona fisiko zein juridikoen bizitegi-lurzoruen eskaintzak aurkezitzaketen, pleguan zehaztutako epean, VISESAren esku egongo ziren lurzoru-erreserba estrategikoak sortzeko. Horrek aukera emango zion VISESAri bere premiei ondoen egokitutako eskaintzak hautatzeko eta lurzoruak eskuratzeko negoziazio-prozesua hasteko.

Deialdi horren emaitza ikusita, eta kontuan izanda eskaintzak hautatzeko prozeduraren — pleguan dago jasota— berezitasunak, uste dugu komeni dela VISESAk lurzoruak eskuratzeko eskaintzak izapidetzeko prozedura eta baldintza orokorrak finkatzea, eskaintzak aurkezteko deialdia epe jakin bati mugatu beharrean irekita egon dadin edozein unetan aintzat hartzeko.

## **2.- XEDEA**

Plegu honen xedea da VISESAk, etxebizitza babestuen egiteko lurzoruak eskuratze aldera, jarraitu beharreko baldintza orokorrak eta prozedura zehaztea.

## **3.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Eratortako eskuraketek izaera juridiko-pribatua dute, eta, ondare-arloko kontratuak izanik, ez ditu arautzen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzaruen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Arau horri jarraituko zaio, bakar-bakarrik, sor litezkeen zalantzak edo hutsuneak argitzeko aplikatu beharreko printzipioei dagokienean (9/2017 Legearen 4. artikulua). Halaber, kontratazioa ez da sartzen Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren — azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartutakoa— aplikazio-eremu subjektiboan (2/2007 Legegintzako Dekretuaren 1. artikulua).

Hortaz, aplikatzekoak izango dira publikotasun- eta gardentasun-printzipioak, bereizkeriarik ez egitekoa, lizitatzailen tratu-berdintasunarena, administrazio onarena eta baliabideen erabilera eraginkorrena. Proiektatutako ondare-eragiketak osoki arautzen dituzte plegu honen xedapenek eta zuzenbide pribatuen ezarritako salerosketa-arauek.

## **4.- ESKAINITAKO LURZORUEN EZAUGARRIAK ETA GEHIENAKO PREZIOA**

VISESAk eskainitako lurzoruak egokitzen jotzeko, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarritzat sailkatuta egon beharko dute, eta planeamenduan bizitegi-lurzorutzat kalifikatuta agertu beharko dute. Gainera, lurzoruak, hala badagokio, sektorizatuta egon beharko dute, eta hirigintzako jarduketako programak eta birpartzelazio-proiektuek, gutxienez, hasiera batean onetsita egon beharko dute. Hala ere, partzela kokatuta dagoen eremuaren hirigintza-garapenaren maila aintzat hartuko da aztertzekeo lurzoruaren eskuratzea komeni ote den, erreserba-lurzoru gisa, hala badagokio, baldin eta interes estrategikoa bada eta Etxebiden udalerrri horri lotutako alokairu-eskari nahikoa badago. Hala baldin bada, inguruabar hori kontuan izango da negoziazio-fasean, bermeei eta ordainketa geroratuen sistemari dagokienez.

Lurzoruen salerosketa formalizatzeko hautatu diren eskaintzaileek honako hau egiaztatu beharko dute VISESAren aurrean, salerosketa-kontratu pribatua sinatu aurretik:

1. Lurzoruak xedatzeko askatasuna dutela.
2. Lurzoruak geologikoki egokiak direla oin berriko eraikinak egiteko, eta ez dagoela substantzia kutsatzailerik edo halakoen hondakinik haietan. Substantzia kutsatzailerik edo hondakinik egotekotan, saltzaileak bere gain hartuko du garbiketa-, berreskurapen-, lekualdatze- eta tratamendu-eragiketen kostu ekonomikoa. Horrez gain, aurretik han zegoen eraikinik edo eraikuntzarik eraitsi behar izango balitz, eta eraispn horien hondakinak kutsatuta egongo balira, saltzaileak bere gain hartuko du hondakin horien kudeaketaren kostua.
3. Eraikuntza, karga, zama edo errentamenduarekin edo beste okupatzaile batzuk izatearekin bateraezina den zortasunik ez dutela.
4. Betetzen dituztela babes ofizialeko etxebizitzak (errentamendu- nahiz jabetza-araubidekoak) eraikitzeo egokiak izateko legezko baldintzak.
5. Lurzoruak jabea nor den egiaztatzen duen eskritura izan beharko du, erregistratuta egon beharko du, eta ezin izango da hasitako ezein promoziotan sartuta egon.

Salerosketa-kontratu pribatua sinatzen den egunean lursailak ez baldin badu orube-izaerarik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen (2/2006, ekainaren 30ekoa) 12. artikuluan jasotako betekizunekin bat, inguruabar hori aintzat hartuko da salerosketaren prezioa murrizteko, edo, bestela, saltzaileak ordaintzeke dauden hirigintza-kargak bere gain hartuta.

Saltzaileak ez du prezioa handitzeko eskubiderik izango baldin eta ondare bihur daitezkeen aprobetxamenduen eskuraketak berekin badakar udalak dagokion legezko aprobetxamendua VIVESAri lagatzea, edo lursailen gaineko eraikigarritasuna handitzen bada haiek eskuratu ondoren.

Elementu librean balorazioak justifikatuta egon beharko du, eskaintza aurkeztu zenetik aurrera gehienez ere SEI HILABETEko antzintasuna duten tasazio-txostenen bitartez. Teknikari kualifikatuek eginak izan beharko dute, ECO/805/2003 Aginduak, martxoaren 27koak (2003/4/9ko BOE), ondasun higiezinak eta eskubide jakin batzuk finantza-xede jakin batzuetarako balioztatzeko arauen gainekoak, exijitutako betekizunen eta xedapenen arabera, eta hipoteka-bermearen helburuarekin. Hona hemen ECO/805/2003 aldatu zuten aginduak: EHA/3011/2007 Agindua, urriaren 4koa (2007/10/7ko BOE), EHA/564/2008 Agindua, otsailaren 28koa (2008/3/5eko BOE) eta ECC/371/2013 Agindua, 2013ko martxoaren 4koa (2013/3/8ko BOE).

Kontu hori aintzat hartu beharko da sustatu beharreko alokairu-araubideko etxebizitza-erakin bat osatuko duten elementu libreak baloratzeko, eta, hortaz, negoziazio-fasean, VIVESA inguruabar hori kontuan izango du prezioa proposatzek orduan.

Eskaintako lurzoruak jabea nor den egiaztatzen duen eskritura izan beharko du, erregistratuta egon beharko du, ezin izango du egon ezein zortasun, karga edo zamaren mende, ez eta hasitako ezein promoziotan sartuta ere. Pro indiviso izaerako titulartasunen eskaintza onartuko da bakar-bakarrik titulartasunaren gainerako zatia administrazio publiko baten esku egonez gero.

Lursailen gainean eraikitzearekin bateraezina den kargarik edo zortasunik izatekotan, hura ezerezteko konpromisoa aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, eskubideen titularren aitorten fede-emailea, esanez, proposamen hori azkenean esleipenduna bada, uko egingo diela eskubide horiei eta jabari osoa utziko duela lurzoruaren titularraren esku. Lursailaren gaineko karga edo zortasuna eragozpena bada deialdi honen xedea betetzeko, hura ezereztu egin beharko da lursaila eskuratu aurretik, epe jakin batez, eta, ez-betetzetik egitekotan, eskuraketa ondorerik gabe geratuko da. Eskaintzaren xede den lurzoruaren gaineko hipotekarik edo enbargarik baldin badago, karga horiek ezereztu direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztuko da, edo, bestela, haiek salerosketa-eskritura publikoa eman aurretik ezereztuko diren konpromiso fede-emailea.

## 5.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Pertsona natural edo juridiko espainiar zein atzerritarrek har dezakete pare lehiaketan, beren kabuz edo behar bezala baimendutako ordezkarien bitartez, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, ez baldin bazaie ezarri Sektore Publikoarekin kontratatzeko debekurik, eta eskaintzaren xede den lurzoruaren gaineko jabari osoa badute.

## 6.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek **edozein unetan** aurkez ditzakete eskaintzak, euskarri elektronikoan, VISESaren egoitza sozialean (Gamarrako Atea 1-A, 2. solairua, Gasteiz).

**6.1. Proposamenen edukia.** Eskaintzak euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira, honako sinadura digital honekin:

- “A” GUTUN-AZALA. Izenburua: “KONTRATATZEKO GAITASUNA”. Hauek sartuko dira:

1. Parte hartzeko eskaera (I. eranskineko ereduaren arabera)

2. Erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskineko ereduaren arabera)

Gaitasun juridikoari eta jarduteko gaitasunari buruzko hasierako dokumentazioaren ordez, lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da (II. eranskina), eta adieraziko da betetzen dituela Pleguan ezarrita dauden kontratatze baldintzak. Kasu horretan, VISESAk proposatutako saltzaileei eskatuko die exijitutako agiriak edukitzeko, eta horiek baliozkoak izan beharko dute.

Aitzitik, deialdiaren ebazpena eman aurreko edozein unetan, VISESAk lizitatzailari eskatu ahalko dio egiazta dezala atal honetan eskatutako adierazpenak egiazkoak direla, Plegu hauetan adierazitako agiriak aurkeztuta, eta hiru egun balioduneko epea izango dute horretarako. Errekerimendu hori betetzen ez badute, lizitazioan atzera egin dutela joko da. Dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsen bat baldin badu, interesdunei jakinaraziko zaie, eta hiru egun balioduneko epea emango zaie zuzentzeko. Errekerimendu hori ez betetzeak aurretik aipatutako ondorio bera ekarriko du.

3. Lizitatzailen dokumentu konfidentzialak:

Lizitatzailerek adierazi beharko dute —hala badagokio, aitorten osagarria aurkeztuta— aurkeztu dituzten dokumentu administratibo edo tekniko eta datuetatik zein jo behar diren konfidentzialtzat. Gainera, inguruabar hori argi adierazi beharko da konfidentzialtzat jo diren dokumentuetan. Aitorpen hori aurkeztu ezean, joko da dokumentu edo datu bakar bat ere ez dela konfidentziala.

4. Europar Batasunetik kanpoko enpresa atzerritarrak:

Entitate horiek bulegoa izan beharko dute Espainian, ahalordedunak edo ordezkariak izendatuta izan beharko dituzte eragiketak egin ditzaten, eta Merkataritza Erregistroan izena emanda egon beharko dute. Halaber, konpromisoa hartu behar dute kontratuaren indarraldian EAEn bulego bat ezarri eta mantenduko dutela, eta, han, enpresaren legezko ordezkari bat izango dela, lanak esleituz gero kontratua erabat garatu eta gauzatzeko behar adina ahalorde dituen.

- “B” GUTUN-AZALA. Izenburua: “DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA”. Hauek sartuko dira:

#### I. Dokumentazio teknikoa

1. Eskainitako lurzoruaren ezaugarrien, hirigintza-baldintzen, azalera osoaren, eraikigarritasunaren eta abarren **berri ematen duen memoria** laburra.
2. Orubearen **hirigintza-zedula** edo udal-ziurtagiri eguneratua, zeinak eskainitako lurzoruaren hirigintza-baldintzen berri ematen duen.
3. **Egiaztatzea** higiezinaren gaineko zer **titulu** duen: Eskainitako higiezinaren gaineko tituluaren kopia aurkeztuko da. Esleipenaren unean, Jabetza Erregistroan jabetza osoa inskribatu izanarena izan beharko du titulu horrek halabeharrez.
4. **Erregistro-ohar soila**
5. **Ondasun higiezinaren gaineko zergaren** azken ordainagiria.
6. Kasuan kasuko arloa betearazte aldera izapidetutako **hirigintza-kudeaketa edo -egikaritze tresnetako** edozeinen (estatutuak eta oinarriak, hitzarmena, garapeneko plangintza, urbanizazio-proiektua, birpartzelazio-proiektua...) izapidetze-egoera eta azken onespeneraren data egiaztatzen dituzten agirien kopia. Hala badagokio, urbanizazio-obren kontratua (lizitazio- eta esleipen-prezioa), urbanizazio-obregatik ordaindutako zenbatekoa eta ordaintzeke dagoena; behin-behineko likidazioa eta hirigintza-kudeaketaz arduratzen den entitatearen gainerako dokumentazioa.
7. Udal-mugarrean eta ingurunean **kokatzeko plano**a, hura zehatz non dagoen adierazten duena.
8. Indarrean dagoen udal-**plangintzaren** egoera, planoaren gainean grafiatuta.
9. Lerrokatzeen eta sestren plano mugatua, indarrean dagoen udal-plangintzatik aterata.
10. Egungo egoera zehaztuta dagoen lekuaren, mugen eta gainerako identifikazio- eta erreferentzia-elementuen argazki-dosierra.
11. Lurzoruen salmentaren **eskaintzari** hura aurkeztu zenetik gutxienez 6 HILABETEZ **utsiko** zaion konpromisoa.

#### II. Dokumentazio ekonomikoa

- III. eranskinean ageri den ereduari jarraituz aurkeztuko da **proposamen ekonomikoa**. Hura aurkezteak pentsarazten du interesdunak Plegu honetan jasotako klausulak onartzen dituela.
- Lursailei dagokien **tasazio-txostena**, plegu honen 3. klausulan zehaztutako betekizunekin bat.

## 7.- ESKAINTZA INTERESGARRIAK HAUTATZEKO PROZEDURA

Hona hemen eskaintza interesgarriak hautatzeko prozedura:

1. Plegu honen 6. atalak hizpide duen dokumentazioa aurkeztutakoan, VISESAk dagokion epean eta moduan kalifikatuko ditu aurkeztutako agiriak, eta zuzentzeko moduko akatsik edo omisiorik hautemango balu, hiru egun baliouduneko epea emango luke haiek zuzentzeko. Era berean, aurkeztutako dokumentuei buruzko azalpenak emateko edo agiri osagarriak aurkezteko eskatu ahalko du.
2. Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta juridikoaren inguruan dagozkion txosten teknikoak eskatu ondoren, erabakiko da lurzoruak eskuratzeko helburuak betetzeari begira interesgarriak ote diren, eta baztertu egingo dira txosten horien arabera promozio-helburuen arabera bideragarriak ez direla-eta komeni ez direnak. Erabakiaren emaitza interesdunei jakinaraziko zaie, eta ezingo da erreklamazio edo uzi ekonomikorik azaldu erabaki horren ondorioz.
3. Hautatutako eskaintzen salerosketa formalizatzeko balizko akordioaren baldintzak negoziatzeko izapidea hasiko da. Horretarako, VISESAk bere erabakia hartzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia aurkezteko eskatu ahalko du: lurzoruaren kutsadurari buruzko azterketak, lursailaren inguruko azterketa geoteknikoa, azterketa akustikoak, azterketa hidraulikoak, araudi sektoriala betetzen duela justifikatzeko agiriak, horiek guztiak administrazio eskudunak onetsita, eta abar.

VISESAk lursailak eskuratzeko baldintzetako bat izango da behar bezalako bermeak aurkeztea, lurzoruaren egoeraren arabera. Sozietate horrek lurzoruaren prezioari buruzko proposamen bat egin dezake, lizitatzailleak eskainitakoa gehieneko prezioztat hartuta, lizitatzailleak, hala badagokio, onar dezan.

Salerosketa-prezioaren ordainketak egiteko Plegu honetan ezarri diren ehunekoak negoziatu egin daitezke.

Negoiazio-izapideen emaitza eta lortutako akordioak kasuan kasuko bileren aktetan jasoko dira.

4. Negoiazio-izapidea amaitutakoan, eskaintzak aurkeztu direnetik gehienez ere 6 hilabeteko epean, VISESAk, Administrazio Kontseiluak onespena eman ondoren,



eskuraketa(k) egitea komeni den erabakiko du, eta izapide horretan adostutako baldintzak eta itunak jakinaraziko ditu, salerosketa-kontratu pribatua zehaztutako epean formalizatzeko aldera. Eskuraketa bakoitzaren bideragarritasun-azterketan oinarrituko da erabaki hori, eta, horrekin batera, zentzu jakin batean jokatzeko arrazoiak adieraziko dira.

Lurzorua eskuratzeko zenbait proposamen onartuz gero, egin beharreko eskuraketen lehentasun-hurrenkera zehaztuko da erabakian, kontuan izanda zein den Etxebizitzaren Gida Planean adierazitako lurzoruak eskuratzeko helburuak ahalik eta ondoen betetzeko modua eta zein den VISESAk ezarri duen gehieneko urteko aurrekontua.

## **8.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Administrazioko Kontseilua da kontratazio-organo eskuduna.

## **9.- SALEROSKETA-KONTRATUA FORMALIZATZEA**

VISESAk bere erabakia jakinarazten duenetik aurrera, saltzaileek HILABETEko epea izango dute, gehienez ere, salerosketa-kontratu pribatua sinatzeko. Une horretan, salerosketa-prezioaren % 20 ordainduko da, bai eta dagokion BEZa ere.

Salerosketak eskritura publikoan formalizatuko dira gehienez ere SEI HILABETEko epean deialdia ebazteko erabakia jakinarazi denetik. Saltzaileek VISESAk adierazitako egunean eta orduan azaldu beharko dute, eskritura publikoak notarioaren aurrean emateko. Eskriturak egiteaz batera, higiezina emango da eta adostutako prezioaren % 60 eta ordaintzeke dagoen BEZaren % 100a ordainduko da. Gainerako % 20a geroratu egingo da, URTEBETEz, hirugarren klausulan ezarritako betekizunak betetzen direla bermatzeko.

Dokumentu publikoa sinatzeko, nahitaezko betekizuna da esleipendunak proposatutako lurzoruak kargarik (hipotekakoak zein bestelakoak) ez edukitzea. Izan ere, higiezinek kargarik edukiz gero, ez da eskritura sinatuko, esleipenduna izango da horren erantzule, eta hurrengo paragrafoan xedatutakoari jarraituko zaio.

Kontratua ez da eskritura publikoan formalizatuko baldin eta esleipendunak ez badira proposatutako ondasunen erregistroko titular, edo ez badute behar adinako ordezkaritza-ahalorderik. Halaber, esleipendunei egotziko zaizkie kontratua eskritura publikoan ez formalizatzeko ekarritako kalteak, eta horiek dagokien zenbatekoa ordaindu beharko dute salerosketa-kontratu pribatua sinatzen den unean ordaindutako prezioarekin batera.

Eskritura publikoa sinatzen den egunerako, higiezinaren egoera juridikoa aldatu baldin bada prozeduran justifikatu zenarekiko, VISESAk erabakia errebotatu ahalko du. Horren ondorioz, VISESAk ez du kontraprestaziorik eman beharrik izango, eta ez du kontratua eskritura publikoan formalizatu behar izango. Saltzaileei egotziko zaizkie kontratua eskritura publikoan ez formalizatzeak ekarritako kalteak, eta horiek dagokien zenbatekoa ordaindu beharko dute salerosketa-kontratu pribatua sinatzen den unean ordaindutako prezioarekin batera.

Kontratua eskritura publikoan formalizatzeak dakartzan notario-, erregistro- eta zerga-gastuak zuzenbidearen arabera ordainduko dira.

## **10.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

VISESAk eta saltzaileak elkarrekiko eskubide eta betebeharrak hauek bereganatuko dituzte: Plegu honen arabera, edo, pleguan horri buruzko ezer ezartzen ez bada, aplikatzekoa den araudiaren arabera, kontratuaren xedetik, kausetatik eta izaeratik eratorritakoak.

Saltzaileak bere gain hartuko du lurzoruen entregatzea eta saneamendua, Kode Zibilaren 1.461. artikuluan xedatutakoarekin bat.

## **11.- EZ-BETETZEAK**

Saltzaileak Plegu honetan ezarritako baldintzak edo kontratuaren bidez bere gain hartutako gainerako betebeharrakoren bat ez betetzeak ahalmena emango dio VISESAri betebeharra bete dadin exijitzeko, edo, bestela, kontratua desegiteko.

VISESAk erabakitzen badu betebeharra bete dadin exijitzea, horrekin batera beste kalte-galerengatik erantzukizun batzuk erreklamatu ahalko ditu.

## **12.- KONFIDENTZIALTASUNA**

Kontratataren betebeharra da konfidentzialtasun osoa eta erreserba gordetzea kontratua betetzen ari zela jakin dituen datu ororen gainean, batik bat izaera pertsonaleko datuen gainean. Ezingo ditu horiek erabili Plegu honetan azaltzen den helburuarekin ez beste batekin, ez eta beste batzuei laga ere, kontserbatzeko besterik ez bada ere. Betebeharrak horrek bost urtez iraungo du, informazioaren berri izan duenetik.

### **13.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA**

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legean xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu agiri honen bitartez jakinarazten dizkiguzun datu pertsonalak tratamendu-jarduera batean txertatuko direla, eta EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A. dela horren arduradun —IFZ: A20306775; helbidea: Gamarrako Atea 1A, 2. solairua, 01013 Gasteiz (Araba); helbide elektronikoa: [visesa@visesa.eus](mailto:visesa@visesa.eus)—. Datuok honako lizitazio hau kudeatzeko erabiliko dira, eta, beraz, azkenean esleipendun izanez gero, eskainitako higiezina erosteko egin beharreko izapideak egiteko baliatuko dira, tratamendu horren legitimazioa edo oinarri juridikoa izanik hura kudeatzeko beharrezkoak diren kontratu aurreko neurrien aplikazioa. Esleipendunaren datu pertsonalei dagokienez, aldean artean sinatutako kontratuaren betearazpena da legezko oinarria.

Hona hemen Datuen Babeserako Ordezkariaren harremanetarako datuak: Gamarrako Atea 1A, 2. solairua, 01013 Gasteiz (Araba). Helbide elektronikoa: [dpo@visesa.eus](mailto:dpo@visesa.eus).

Lizitzaileen eta esleipendunaren datu pertsonalak Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jakinaraziko zaizkio, gure jarduera fiskalizatzeko organoa den heinean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legean (1/1988, otsailaren 5koa) xedatutakoa betez, bai eta, hala badagokio, zerga-betebeharrak betearazteko eskumena duen zerga-administrazioari ere, probintzia bakoitzean aplikatzekoa den Zergei buruzko Foru Araua betez.

Lizitzaileen datu pertsonalak lizitazioaren indarraldiak iraun artean gordeko ditugu, eta, hura amaitutakoan, erantzukizunen preskripzio-epeek iraun bitartean. Enpresa esleipendunari dagokionez, kontratu-harremanaren indarraldiak iraun bitartean, eta, hura amaitutakoan, legezko betebeharrak betetzeko behar den epeaz.

Zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, horien tratamendua mugatzeko, haien aurka egiteko edo datuak eramateko eskaera idatziz helaraz diezaiokezu EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A.-ri, Gamarrako Atea 1A, 2. solairua, 01013 Gasteiz (Araba) helbidera jota, edo, bestela, [dpo@visesa.eus](mailto:dpo@visesa.eus) helbidera mezu elektronikoa igorrita. Nolanahi ere, idazkiarekin batera, bidali NANaren fotokopia. Hala eta guztiz ere, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazioa aurkezteko eskubidea duzu, dela egoitza elektronikoaren bitartez, dela agentziaren egoitzara jota (Jorge Juan kalea 6, 28001, Madril).

### **14.- JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Sortutako auzigaiak jurisdikzio zibilaren mende jarriko dira, bereziki Gasteizko Epaitegi eta Auzitegien mende.



**ERANSKINAK**

## I. ERANSKINA: PARTE HARTZEKO ESKAERA

.....<sup>1</sup> jaun/andreak (NAN: .....), bere izenean edo .....  
(IFK: .....; helbidea: ..... kalea, .....) ordezkatzuz:

### AZALTZEN DU

- A) VISESAk, etxebizitza babestuen promozioa helburu duten lurzoru-eskaintzak jasotze aldera, antolatu duen kontratazio-prozeduraren berri duela.
- B) Lizitazio horretan parte hartu nahi duela, eta, beraz, horretarako exijitutako dokumentazioa aurkezten duela honekin batera.
- C) Prozedura honetan egin beharreko jakinarazpenak honako helbide, telefono, fax eta helbide elektronikoko hauetan jaso nahi dituela:
  - Helbidea - Telefonoak - Faxa:
  - Helbide elektronikoa:

Horrenbestez,

### ESKATZEN DU

VISESAk, etxebizitza babestuen promozioa helburu duten lurzoru-eskaintzak jasotze aldera, antolatu duen kontratazio-prozeduran parte hartzeko eskaera hau onar dadila.

....., 2019ko .....aren ...(a)

Sin.:

---

<sup>1</sup> lizitatuzailearen izen-abizenak edo enpresaren izena eta proposamenak sinatu dituen pertsonaren izen-abizenak, zeren gisa sinatu duen adieraziz

## II. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaun/andreak (NAN: .....), bere izenean edo .....  
(IFK: .....; helbidea: ..... kalea, ..... ) ordezkatzuz, honako hau  
ADIERAZTEN DU bere erantzukizunpean:

- Ordezkatzun dudana enpresak kontratu hau sinatzeko behar diren nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa dituela.
- Enpresa nahiz bere administratzaile edo ordezkariak ez daudela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatuta dauden ezintasun- edo bateraezintasun-kausen eraginpean, eta ez dutela kontratatzeke debekurik.
- Ez daudela Merkataritza Kodearen 42. artikuluan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen 182. artikuluan aipatutako kasuetako bakar batean ere.

Horixe adierazten dut Plegu honetan ezarritako ondoreetarako. Hortaz, adierazten dut erantzukizunpeko adierazpen hau aurkezten dudana unean betekizun guztiak betetzen ditudala, eta konpromisoa hartzen dut betekizun horiek betetzen ditudala justifikatzeko agiriak aurkeztuko ditudala kontratazio-mahaiak eskatutako epean.

....., 2019ko .....aren ...(a)

Sin.:

### III. ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOA

..... jaun/andreak (NAN: .....), bere izenean edo .....  
(IFK: .....; helbidea: ..... kalea, .....) ordezkatzuz:

A) Etxebizitza babestuen promozioa helburu duten lurzoru-eskaintzak jasotzeko deialdi publikoari aplikatzen zaion Baldintzen Plegua aztertu duela eta ezagutzen duela.

B) Honako deialdi honi aplikatzen zaion Baldintzen Pleguarekin bat datorrela, haren mende geratzen dela borondatez, eta oso-osorik onartzen duela.

B) VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI SA/EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, EAK (VISESA) egindako deialdiaren harira, .....ko (EUROAK, BEZik gabe; adierazi zenbakiz eta letraz) eskaintza ekonomikoa aurkezten duela.

Eskaintako prezioan ez dira sartzen ez BEZa ez esleipenetik eratorritako beste ezein zerga edo gastu, Lehiaketa arautzen duen pleguan ezarritakoarekin bat.

....., 2019ko .....aren ...(a)

Sin.: